




EAEn bizi diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonen % 64,5ek administrazio elektronikoa erabili zuen 2025ean

1. e-Administrazioa enpresetan
2. e-Administrazioa lehen sektorean
3. e-Administrazioa administrazio publikoetan
4. e-Administrazioa eta pertsonak
5. Glosariorako eta beste estatistiketarako estekak

1. e-Administrazioa enpresetan

EAEko establezimenduen % 61,3 prozedura elektronikoa bat izapidetu du erabat administrazio elektronikoen bidez



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

EAEko ia establezimendu guztiek, % 97,7k (guztira 152.485 establezimendu), lehen sektorekoak, etxeko-zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak izan ezik, administrazio elektronikoa erabili zuten 2024an¹, zuzenean edo hirugarrenen bidez.² 10 lanpostu edo gehiagokoen kasuan % 98,7 izan ziren, Eustaten datuen arabera. Erabilera edo elkarrekintza askotarikoa izan da: informazioa eskuratzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedurak edo izapideak oso-osorik teleizapidetzera.

¹ Administrazio Elektronikoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.

² Establezimendu batzuek zuzenean egiten zituzten izapideak eta prozedurak edo jasotzen zuten informazioa; beste batzuek, aldiz, ekintza horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten, 2016ko bilketan azken horiek ere jaso ziren. 2017koan (2016ko emaitzak), Internet eduki gabe administrazio elektronikoa erabiltzen zutenak sartu ziren.

Eskuragarri ditugun azken 25 urteetako datuak kontuan izanda hainbat aldi bereiz daitezke:

2000tik 2008ra bitartean, enpresek administrazio elektronikoa geroz eta gehiago erabiltzera jo zuten, hots, zortzi aldiz baino pixka bat gehiago handitu zen erabilera epe horretan.


2009tik 2013ra, krisi ekonomiko betean, administrazioekiko Internet bidezko interakzioaren hazkundera apaldu egin zen.

2015 eta 2016ko datuek haustura erakusten dute 2000-2014 seriearekin alderatuta; izan ere, administrazio elektronikoa erabili arren, Interneteko konexiorik ez daukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotutako metodologia-aldaketa egin zen.

2017az geroztik, administrazio elektronikoaren erabilera % 90etik gorakoa izan da establezimenduen artean, eta hazkunde-tasa apalagoa izan du, 2024an 97,7ra iritsi da.

Bestalde, establezimenduen tamainaren araberako balioen arteko aldea murrizten joan da azken urteetan, ehuneko puntu bat baino ez da izan.


G.2 Azken urtean administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduen ehunekoaren urte arteko aldakuntzaren bilakaera. EAE. 2000-2024. p.p.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa



G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2024. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Lau establezimendutik hiruk baino gehiagok, % 80,5k, beste erakunde batzuk behar dituzte administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko.

Kontuan izan behar da enpresek eta beren establezimenduek zuzenean egin ditzaketela kudeaketa administratiboen zati bat, eta, aldi berean, hirugarrenengana jo dezaketela beste kudeaketa batzuk egiteko.

Proporzio hori % 66ra soilik iristen da 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduetan. Azken urteotan, hirugarrenek izapidetzeko joera handitu egin da, zehazki, hirugarren baten zerbitzuak erabiltzen zituzten 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen ehunekoa 1,7 puntu igo da azken urtean.

G.11 Administrazio publikoekin izapideak egin behar dituzten establezimenduak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

10 lanpostu edo gehiagoko enpresen % 88,7k zuzenean izapidetzen dute, eta ia hirutik bik (% 62,1).


Ziur aski, erakunde horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten kudeaketak digitalizazio-aldiaren aurretik; gaur egun, elektronikoki bada ere, hirugarrenen bidez egiten dituzte, establezimenduaren tamaina eta gaitasun informatikoak edozein direla ere.

2024an establezimenduen % 82k bide elektronikoa erabili zuen BEZaren aitortpenak egiteko.

2023. urtearekin alderatuta, administrazio elektronikoen erabilerak apur bat gora egin du kudeaketa guztietan; izan ere, gora egin du informazioa lortzeko (3,2 puntu), inprimakiak eta formularioak lortzeko (2,3 puntu), beste batzuek eta BEZaren eta aduanen adierazpenek.

Enplegatuen gizarte-kotizazioen aitortpenak nabarmentzen dira izapideen beharakada orokorrean, ehuneko 3, puntuko beharakadarekin.

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. EAE. 2011, 2015, 2020-2024. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Administrazio elektronikoa erabiltzen den sofistikazio-mailari dagokionez, establezimenduen % 61,3k gutxienez prozedura elektronikoa oso bat izapidetzea lortu du. Datu hori ehuneko 2,6 puntu jaitsi da 2023tik. Hala ere, nabarmendu behar da establezimendu horiek ehuneko 9,2 puntu igo direla azken 5 urteetan, eta bikoitzera baino gehiagora igo direla azken 10 urteetan.



Erakunde-rankingaren buruan foru-aldundiak daude (% 89,3). Beherakada txiki bat izan da aurreko urtearekin alderatuta. Bigarren administrazio zentrala dago (% 74,4), eta gero Eusko Jaurlaritza (% 66,5). Hala ere, administrazio horiekin interakzio elektronikoa duten establezimenduak ehuneko 0,7 puntu jaitsi da administrazio zentralaren kasuan, eta pixka bat igo da Eusko Jaurlaritzaren kasuan.

Zerrenda hori itxi dute ehuneko 3,8 puntu igo diren toki-erakundeek (% 41) eta Europar Batasunak eta beste batzuk (% 11,7), puntu bat inguru egin baitute behera, hurrenez hurren.

Nabarmendu behar da establezimendu guztiak ez daudela behartuta administrazio guztiarekin izapideak egitera, eta, kasu batzuetan, enpresa bereko beste establezimendu batzuek egiten dituztela.

Argi dago foru-aldundien eta administrazio zentralaren zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko nahitaezko izapide elektronikoen garrantzia.

10 enplegu edo gehiagoko motako tokiak, establezimendu guztien ordena bera jarraitzen dute. Establezimendu mota horietan azpimarratzekoa da Europar Batasuneko eta beste batzuetako igoera, ehuneko 2,9 puntukoa, Eusko Jaurlaritzarena 2,6 puntukoa eta toki-erakundeena 2,4 puntukoa dela.




TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2013-2024. %

| | Gaztira | | | | | | | | | | | | Eusko Jaurlaritza | | | | | | | | | | | | Foru erkundiak | | | | | | | | | | | | | |
|--|---------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| | 2013 | | | 2014 | | | 2015 | | | 2016 | | | 2017 | | | 2018 | | | 2019 | | | 2020 | | | 2021 | | | 2022 | | | 2023 | | | 2024 | | | | |
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | | |
| HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE | 54,5 | 57,0 | 71,8 | 87,8 | 91,0 | 93,0 | 93,5 | 92,1 | 94,3 | 97,7 | 97,3 | 97,7 | 97,3 | 97,7 | 97,3 | 97,0 | 48,7 | 54,2 | 51,3 | 59,1 | 63,6 | 68,2 | 66,3 | 66,5 | 45,1 | 46,8 | 64,8 | 73,4 | 83,5 | 84,1 | 86,6 | 83,8 | 87,1 | 89,6 | 89,9 | 89,3 | | |
| Informazioa lortzeko | 44,3 | 46,5 | 52,2 | 58,0 | 66,5 | 70,0 | 66,2 | 69,5 | 71,1 | 74,0 | 72,7 | 75,9 | 32,9 | 33,2 | 31,3 | 37,0 | 41,2 | 42,6 | 41,6 | 44,4 | 47,3 | 49,6 | 50,5 | 52,5 | 36,7 | 37,7 | 43,2 | 47,2 | 50,9 | 55,7 | 56,0 | 55,7 | 57,8 | 60,7 | 60,9 | 63,6 | | |
| Inprimakiak eta formularioak lortzeko | 42,5 | 44,7 | 52,2 | 57,1 | 65,1 | 67,4 | 64,7 | 67,2 | 68,0 | 70,6 | 69,8 | 72,1 | 27,5 | 27,9 | 25,5 | 33,6 | 36,7 | 36,7 | 34,3 | 40,7 | 43,0 | 44,7 | 44,7 | 46,9 | 35,5 | 35,5 | 43,2 | 46,3 | 51,4 | 54,3 | 53,4 | 53,3 | 55,2 | 57,5 | 57,5 | 60,0 | | |
| Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko | 31,3 | 33,7 | 42,7 | 45,3 | 55,4 | 57,5 | 56,8 | 58,0 | 63,1 | 66,4 | 66,6 | 65,8 | 19,8 | 20,3 | 22,3 | 23,8 | 29,8 | 30,8 | 30,8 | 34,9 | 42,4 | 45,6 | 45,9 | 43,2 | 25,0 | 26,2 | 34,8 | 35,8 | 42,1 | 46,5 | 45,8 | 45,1 | 51,0 | 54,4 | 52,4 | 54,4 | | |
| Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko | 20,3 | 23,5 | 36,4 | 37,3 | 50,3 | 55,2 | 52,1 | 56,2 | 60,3 | 64,8 | 64,1 | 61,3 | 11,2 | 12,6 | 16,7 | 18,7 | 25,2 | 31,8 | 26,6 | 32,1 | 37,9 | 41,5 | 42,0 | 38,6 | 14,4 | 16,6 | 27,6 | 26,8 | 36,4 | 39,3 | 38,2 | 41,5 | 45,0 | 48,5 | 48,9 | 47,8 | | |
| Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement) | 5,2 | 5,3 | 10,0 | 9,8 | 15,8 | 17,3 | 19,3 | 19,1 | 20,2 | 19,5 | 20,9 | 20,2 | 2,9 | 2,9 | 4,4 | 4,5 | 7,3 | 8,0 | 9,8 | 10,2 | 10,6 | 10,8 | 12,0 | 9,8 | 3,0 | 3,1 | 6,5 | 5,5 | 8,7 | 9,3 | 10,2 | 10,5 | 11,3 | 10,7 | 10,9 | 11,5 | | |
| Langileen pertsonen kartzazio sozialak adierazteko | 28,4 | 28,2 | 44,2 | 44,2 | 56,7 | 57,5 | 61,1 | 64,6 | 65,6 | 67,7 | 70,5 | 66,2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | |
| Sozietate-Zergaren adierazpenarako | 29,5 | 30,2 | 45,4 | 62,9 | 57,1 | 56,9 | 61,0 | 57,3 | 61,3 | 61,7 | 62,3 | 59,3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 25,2 | 25,5 | 40,3 | 50,3 | 48,3 | 50,0 | 55,7 | 50,0 | 55,2 | 55,9 | 56,3 | 52,7 | 52,7 | |
| Balio Erantsiaren gainerako Zergaren (BEZ) adierazpenarako | 34,7 | 34,2 | 55,0 | 72,8 | 73,3 | 74,4 | 79,4 | 78,1 | 79,0 | 82,4 | 81,7 | 82,0 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 28,2 | 28,7 | 51,0 | 56,4 | 67,7 | 67,9 | 73,9 | 70,9 | 73,5 | 76,7 | 75,5 | 74,4 | 74,4 | 74,4 |
| Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko | 4,9 | 5,4 | 9,3 | 9,2 | 11,6 | 12,7 | 11,5 | 12,4 | 12,8 | 13,0 | 12,9 | 13,6 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Beste izapide edo zerbitzu bazuk | 1,8 | 1,7 | 2,9 | 6,1 | 7,5 | 10,3 | 11,4 | 14,4 | 12,2 | 12,2 | 12,7 | 14,2 | 0,4 | 0,4 | 0,8 | 0,6 | 3,0 | 1,3 | 7,0 | 10,6 | 7,7 | 8,1 | 8,6 | 9,3 | 0,9 | 1,0 | 1,6 | 4,6 | 3,6 | 7,0 | 3,5 | 3,4 | 3,6 | 3,7 | 3,8 | 4,3 | 4,3 | |

| | Toki-erakundeak | | | | | | | | | | | | Administrazio zentrala | | | | | | | | | | | | Europar Batasuna eta beste batzuk | | | | | | | | | | | | | | |
|--|-----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-----------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-----|---|
| | 2013 | | | 2014 | | | 2015 | | | 2016 | | | 2017 | | | 2018 | | | 2019 | | | 2020 | | | 2021 | | | 2022 | | | 2023 | | | 2024 | | | | | |
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | | | |
| HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE | 22,3 | 21,7 | 21,0 | 27,5 | 26,5 | 29,7 | 27,9 | 32,1 | 33,4 | 33,4 | 37,2 | 41,0 | 39,6 | 39,2 | 51,7 | 67,9 | 67,6 | 72,3 | 71,8 | 71,6 | 73,8 | 77,4 | 75,1 | 74,4 | 4,9 | 6,2 | 7,4 | 7,2 | 8,8 | 9,8 | 10,4 | 8,3 | 8,9 | 11,4 | 12,6 | 11,7 | 11,7 | | |
| Informazioa lortzeko | 20,7 | 20,3 | 16,2 | 24,7 | 22,6 | 25,8 | 22,5 | 25,6 | 27,5 | 27,5 | 30,6 | 33,3 | 21,2 | 22,4 | 20,6 | 24,4 | 22,8 | 25,8 | 25,2 | 27,2 | 26,2 | 31,2 | 31,0 | 32,3 | 4,0 | 4,7 | 5,7 | 5,6 | 6,9 | 7,0 | 7,5 | 5,6 | 6,5 | 9,4 | 10,1 | 9,5 | 9,5 | | |
| Inprimakiak eta formularioak lortzeko | 15,8 | 15,8 | 14,3 | 21,0 | 18,0 | 20,3 | 19,1 | 22,3 | 22,6 | 22,6 | 26,2 | 29,7 | 17,2 | 18,3 | 17,4 | 21,5 | 19,6 | 20,5 | 21,4 | 21,7 | 22,3 | 26,6 | 25,6 | 28,1 | 2,6 | 3,5 | 3,2 | 3,5 | 4,3 | 4,6 | 5,1 | 3,4 | 3,8 | 6,5 | 6,9 | 7,3 | 7,3 | | |
| Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko | 8,9 | 9,3 | 10,2 | 12,7 | 13,7 | 15,8 | 16,2 | 18,5 | 20,2 | 20,2 | 24,5 | 26,9 | 13,2 | 14,2 | 14,3 | 17,2 | 16,5 | 18,5 | 19,2 | 18,8 | 20,3 | 23,2 | 24,3 | 24,5 | 1,9 | 2,7 | 2,0 | 2,8 | 3,2 | 3,4 | 3,9 | 2,7 | 3,3 | 5,8 | 6,8 | 6,6 | 6,6 | | |
| Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko | 4,5 | 4,9 | 6,9 | 8,8 | 9,8 | 11,4 | 12,8 | 16,1 | 18,2 | 18,2 | 19,9 | 21,5 | 8,0 | 9,5 | 12,2 | 13,1 | 14,7 | 16,5 | 17,1 | 19,0 | 19,2 | 23,5 | 23,4 | 24,4 | 1,5 | 1,7 | 1,7 | 2,0 | 2,6 | 2,9 | 3,3 | 2,2 | 2,5 | 2,6 | 3,5 | 3,0 | 3,0 | | |
| Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement) | 1,5 | 1,5 | 1,7 | 1,6 | 2,3 | 3,0 | 4,4 | 4,3 | 5,0 | 5,0 | 5,4 | 5,3 | 2,5 | 2,4 | 3,0 | 3,2 | 4,6 | 5,4 | 6,1 | 5,1 | 6,0 | 6,6 | 5,8 | 5,8 | 0,8 | 0,8 | 0,9 | 1,0 | 1,2 | 1,1 | 1,5 | 1,0 | 0,8 | 1,2 | 1,5 | 1,3 | 1,3 | | |
| Langileen pertsonen kartzazio sozialak adierazteko | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Sozietate-Zergaren adierazpenarako | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Balio Erantsiaren gainerako Zergaren (BEZ) adierazpenarako | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste izapide edo zerbitzu bazuk | 0,3 | 0,4 | 0,3 | 0,4 | 0,7 | 0,8 | 1,0 | 1,4 | 1,2 | 1,2 | 1,0 | 0,9 | 0,5 | 0,6 | 1,0 | 1,1 | 1,3 | 2,3 | 1,3 | 1,5 | 1,9 | 1,0 | 1,6 | 1,8 | 0,2 | 0,1 | 0,1 | 0,3 | 0,3 | 0,5 | 0,6 | 0,4 | 0,7 | 0,5 | 0,7 | 0,5 | 0,7 | 0,4 | |




G.1.1.5.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2024. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa


G.1.1.5.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2024. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa



G.4.2 Establezimendu guztien eta 10 lanpostu edo gehiagokoan administrazio elektronikoaren erabileraren ehunekoaren aldakuntza administrazio motaren arabera. EAE. 2023-2024. Δ p.p.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

2. e-Administrazioa lehen sektorean

Lehen sektoreko establezimenduen erdiak baino gehiagok elektronikoki kudeatu zuen BEZa, 2018an heren batera ere ez zen iristen proportzio hau.³

2012an administrazio elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2. Igoera hori hainbat faktorek azaltzen dute.

Lehenengoz, aztertu nahi den biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jarduera nagusi zutenak soilik ardatz hartuta.

Aldaketa horri zati batean lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan Interneten garrantzia 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

2015etik 2018ra, hazkundea garrantzitsua da: % 35,2tik % 85,1era igaro da establezimendu guztietan, eta % 78,8tik % 98,5era 10 enplegu eta gehiagokoetan.

Administrazio publikoek zenbait prozedura eta izapidetan ezarritako online izapidetzeko nahitaezkotasunak, hirugarrenen tramitazioa eta bitartekaritza errazten duten APP-en garapenak, aipatutako igoerak justifikatzeko azalpen onargarrienetako batekin agertzen dira, eta, gainera, 2018an e-Administrazioaren erabiltzailatzat hartzen dira internautak ez direnak (hirugarrenen bidez ere izan zitezkeen), eta hori ez zen gertatu 2015ean.⁴

2018tik 2022ra egonkortu egin da hazkundea: % 85,1etik % 83,8ra igaro da establezimendu guztietan, eta % 98,5etik % 92,9ra 10 enplegu eta gehiagokoetan.


2022tik 2025erako bilakaera oso positiboa izan da: establezimendu guztien % 91,6k administrazio elektronikoa erabili du, eta ehuneko hori % 100era iristen da 10 enplegu edo gehiago dituztenetan.

Zuzenean izapidetzen duten establezimenduek gora egin dute, 2022ko % 42,4tik 2025eko % 45,4ra, baina hirugarrenen bidez izapidetzen dutenak %5,3 puntu igo dira.

³ Administrazio elektronikokoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jaso zen urtea, urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi aldaketa metodologikogatik: 2015etik aurrera, jarduera nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jarduera hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarren bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.

⁴ 2016ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2015), ez zitzairen administrazio elektronikokoaren erabilerari buruzko galderarik egin Internetera astean gutxienez behin konektatu ez ziren pertsonen. 2019ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2018) ez zen beharrezkoa Internetera konektatzea e-Administrazioaren erabiltzaile gisa hartzeko.


G.5.1 Lehen sektoreko establezimenduek administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2025.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak, 2025ean, 127 ustiatetik osatutako klub murriztua ziren; 10 kasutik ia 9tan (% 88,2) kontratatutako erakundeak baliatzen zituzten beren administrazioiko izapideak egiteko; 2022an baino ehuneko 1,2 puntu gehiago

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2025.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

2025an, lehen sektorea batez ere foru-administrazioarekin jarri da harremanetan bide elektronikoa erabiliz: establezimenduen % 84 (% 78,6 2022an). Beste aukerak dira, Administrazio Zentrala (% 61,9) eta Eusko Jaurlaritza (% 56,4). Sektore horretan, alabaina, administrazio elektronikoaren bidez harremanak edukitzeko azken aukerak toki-administrazioa (% 25,4) eta Europar Batasuna (% 5,2) izan ziren. 2025ean, handitu egin da izapidetze elektronikoa administrazio guztietan.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, rankinga antzekoa da: % 92,1ek foru-administrazioarekin izapidetzen du, % 85,8k administrazio zentralarekin, % 83,5ek administrazio autonomikoarekin eta % 36,2k tokiko administrazioarekin. Nabarmentzekoa da Europar Batasunarekiko izapidetzearen gorakada, 2022an % 9,9 izatetik 2025ean % 22 izatera igaro baita.

G.5.3.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2012-2025.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

G.5.3.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Lehen Sektoreko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2012-2025.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Lehen sektoreko establezimenduen eta gainerako sektore ekonomikoen arteko aldea murriztu egin zen 2018an administrazio publikoekin elkarri eragiteko orduan, baina bien arteko aldea handitu egin da berriro 2022an. 2025ean, aldea hori apur bat jaitsi da. 2025eko inkestatik eratorritako datuen arabera, lehen sektoreko establezimenduen % 91,6k elektronikoki elkarri eragiten du, eta % 97,7k gainerako sektore ekonomikoetan. 2022ean, establezimenduak % 94 ziren guztira, eta lehen sektorekoak % 83,8.

TAU 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2025%

| | Establezimenduak. Guztira | | | | | | 10 lanpostu edo gehiagokoak | | | | | |
|--|---------------------------|-------------------|----------------|-----------------|------------------------|-----------------------------------|-----------------------------|-------------------|----------------|-----------------|------------------------|----------------------------|
| | Guztira | Eusko Jaurlaritza | Foru aldundiak | Toki-erakundeak | Administrazio Zentrala | Europar Batasuna eta beste batzuk | Guztira | Eusko Jaurlaritza | Foru aldundiak | Toki-erakundeak | Administrazio Zentrala | Europar Batasuna eta beste |
| HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DU | 91,6 | 61,9 | 56,3 | 84,0 | 25,4 | 5,2 | 100,0 | 85,8 | 83,5 | 92,1 | 36,2 | 22,0 |
| Informazioa lortzeko | 59,6 | 9,8 | 38,3 | 54,2 | 16,6 | 2,5 | 89,0 | 53,5 | 67,7 | 76,4 | 29,1 | 18,9 |
| Inprimakiak eta formularioak lortzeko | 56,9 | 6,5 | 33,7 | 48,0 | 16,3 | 2,3 | 86,6 | 44,1 | 68,5 | 74,0 | 25,2 | 18,1 |
| Inprimakiak eta formularioak | 54,3 | 5,4 | 37,3 | 42,7 | 10,7 | 2,1 | 88,2 | 38,6 | 67,7 | 63,8 | 20,5 | 14,2 |
| Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko | 45,5 | 5,9 | 24,5 | 36,2 | 9,2 | 2,3 | 85,0 | 40,9 | 66,1 | 70,1 | 20,5 | 14,2 |
| Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko) | 14,8 | 1,9 | 5,0 | 9,4 | 2,0 | 2,3 | 34,6 | 8,7 | 16,5 | 28,3 | 13,4 | 2,4 |
| Sozietate-Zergaren adierazpenerako | 53,7 | 52,8 | - | - | - | 1,2 | 77,2 | 77,2 | - | - | - | - |
| Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako | 31,3 | 7,2 | - | 23,3 | - | 1,6 | 77,2 | 6,3 | - | 72,4 | - | - |
| Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko | 55,7 | 9,0 | - | 46,1 | - | 1,9 | 88,2 | 8,7 | - | 82,7 | - | - |
| Beste izapide edo zerbitzu batzuk | 6,3 | 4,7 | - | - | - | 1,7 | 23,6 | 22,0 | - | - | - | 2,4 |
| Beste izapide edo zerbitzu batzuk | 16,8 | 5,5 | 2,6 | 9,2 | 1,2 | 1,1 | 7,1 | 3,1 | 2,4 | 2,4 | 1,6 | 0,8 |


% 53,7k Gizarte Segurantzako kotizazioak aitortzen dituzte administrazio elektronikoa bidez–2022an baino ehuneko 5,5 puntu gehiago–, eta % 55,7 inguruk BEZa kudeatzen du, 2022an baino 2,1 puntu gutxiago.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustiatzearen egoera oso bestelakoa da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta; ekonomiaren beste esparru batzuetara hurbiltzen eta gaitzen da. Izan ere, 2025ean, lehen sektoreko establezimenduen % 100k erabiltzen zuten administrazio elektronikoa, gainerako sektore ekonomikoetan, aldiz, % 98,7k.

BEZaren aitortzearen, 10 enplegu edo gehiagoko lehen sektorearen estratua ehuneko zortzi puntu handiagoa izan zen gainerako sektoreetako estratu berarekin alderatuta. Ez da gauza bera gertatzen lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko, zerga bereziak edo aduana-eskubideak edo Gizarte kotizazioetan.



G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2025.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

3. e-Administrazioa eta administrazio publikoak

Establezimendu publikoen % 97,4k harreman elektronikoa dute Eusko Jaurlaritzarekin.

2016an egin zen lehen informazio-bilketa eta laginketa berezia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietako establezimenduentzat. IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen⁵.

2024an, administrazio publikoen establezimenduak 4.159 ziren, eta horietatik 2.059 10 enplegu edo gehiagoko geruzan zeuden. Ia establezimendu guztiek tramiteren bat edo kontsultaren bat egin zuten Interneten administrazio publikoen atarietan, hau da, % 99,1k, 10 enplegu edo gehiago dituztenetatik oso gertu (% 99,6).

Establezimendu publiko guztien % 97,4k izapidetzen edo bilatzen du informazioa Eusko Jaurlaritzan, eta ehuneko horrek nabarmen gaintitzen du aurreko urtekoa (% 91,3). Gainerako administrazioetan nabarmentzekoa da administrazio zentralak ehuneko 12 puntu egin duela gora (% 89,8). Bai Foru Aldundiak (3,7 puntu gehiago), bai Toki Erakundeak (2,7 ehuneko puntu gehiago) bai Europar Batasunak eta beste batzuek (5,6 puntu gehiago) igoerak izan dituzte ekitaldi honetan.

10 enplegu eta gehiagoko establezimenduen artean, administrazio guztiek hobetu dute trafikoa 2023. urtearekin alderatuta. Era horretako establezimenduetan administrazio zentralak (% 83,1) izan du igoera nabarmenena, 9,3 puntu igo baita aurreko ekitaldiko jaitsiera (ehuneko 5,9 puntu) konpentsatzen dutenak. Eusko Jaurlaritzarekiko (% 99,6), foru-aldundiekiko (% 76,4), toki-erakundeekiko (% 71,5) eta Europar Batasunarekiko (% 49,7) interakzioak ehuneko 3,8, 0,2, 0,6 eta 3,8 puntu igo dira, hurrenez hurren.

⁵ Eustat. Fitxa metodologikoa.

https://eu.eustat.eus/document/esia_e.html

• Administrazio Zentrala

• Eusko Jaurlaritza

• Foru-aldundiak

• Udalak

• Mankomunitateak eta partzuergoak

• Udalerrien elkartzeak eta kuadrillak

• Toki-erakunde txikiagoak

• Erakunde autonomiadunak


• Beste entitate publiko batzuk (Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua)

• Sozietate kapitalaren gehiengo administrazio publikoarena duten merkataritza-sozietateak

• Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea


• Etxeen zerbitzura lan egiten duten eta irabazi asmorik ez duten fundazioak eta erakundeak, administrazio publikoak baldin badu partaidetzaren gehiengoak.

G.21.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten administrazio publikoko establezimenduen, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, bilakaera administrazio motaren arabera. EAE. 2021-2024 Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa


G.21.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2024.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa



G.22.b. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Administrazio Publikoaren establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2024.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI – Administrazioa

12 puntu igo da administrazio elektronikoa beste erakunde publiko batzuekin erabiltzeko hirugarrenen laguntza behar duten establezimenduen ehuneko.

Administrazio publikoetako establezimenduek gainerakoek baino gutxiago erabiltzen dute administrazio elektronikoa hirugarrenen bitartez.

Establezimendu publikoaren % 30,2ek hirugarrenen laguntza behar izan zuten kudeaketa administratiboa egiteko, eta balio hori 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduenaren antzekoa izan zen (% 31,4).


G.25 Zuzenean edo hirugarrenen bidez administrazio publikoekin izapideak egin behar dituzten administrazio publikoetako establezimenduak, guztiak eta 10 lanpostu edo gehiagokoak.EAE. 2024.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI – Administrazioa

Establezimendu publiko gehienek e-Administrazioa erabiltzen dute betetako inprimakiak itzultzeko

G.24 Administrazio elektronikoa erabili duten administrazio publikoko establezimenduak izapideen motaren arabera. EAE. 2017-2024. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarte-erabileraren buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

E-administrazioaren eskaintzari dagokionez, establezimendu publikoek gehien erabili zituztenak betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 96,9), formularioak eta inprimakiak lortzea (% 87,3), informazioa bilatzea (% 86,8) eta gizarte-kotizazioen aitortzea (% 86,4) izan ziren.

Hain zuzen ere, gizarte-kotizazioen aitortzea da gehien igo den gestio-mota (ehuneko 25,3 puntu gehiago 2023an baino). Informazioaren lorpenak pixka bat behera egin du, eta BEZaren aitortzearen 5,3 puntuko igoerak ia konpentsatu egin du 2023ko 6,4 puntuko beherakada.

Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da betetako inprimakiak eta formularioak itzultzeari dagokionez (% 96,2). Gainerako administrazioetan, jarduera ohikoena informazioa bilatzea da.

Izapidetze elektronikoa osoari dagokionez, erakundeek % 70,5k Eusko Jaurlaritzarekin egiten du, % 54k foru-aldundiekin, % 50,3k administrazio zentralarekin eta % 39,4k toki-erakundeekin. 2023tik 2024ra bitarteko hazkunderik handiena (ehuneko 5,5 puntu) toki-erakundeei dagokie; ondoren, foru aldundiei (4,5 puntu). Izapidetze-mota horretan, Europar Batasuna eta beste batzuk da zifra murrizten dituen bakarra.



TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen esabiezimendua izapideten motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017-2024. %

| | Guztira | | | | | | | | | | Eusko Jaurlaritza | | | | | | | | | | Foru aldundiak | | | | | | | | | |
|--|---------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|----------------|------|------|------|--|--|--|--|--|--|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | | | | | | |
| HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE | 92,8 | 92,1 | 93,0 | 89,0 | 89,9 | 96,6 | 99,1 | 99,1 | 83,1 | 82,9 | 84,8 | 76,3 | 84,5 | 84,5 | 91,3 | 97,4 | 64,4 | 63,0 | 64,3 | 59,7 | 58,5 | 71,7 | 70,0 | 73,7 | | | | | | |
| Informazioa lortzeko | 89,4 | 89,0 | 88,5 | 83,8 | 80,6 | 88,9 | 91,1 | 86,8 | 79,3 | 78,0 | 78,8 | 72,7 | 70,9 | 78,0 | 79,5 | 81,6 | 57,9 | 56,7 | 58,0 | 56,1 | 51,3 | 65,2 | 64,8 | 69,3 | | | | | | |
| Inprimakiek eie formulazioak buruzko | 85,8 | 82,6 | 81,6 | 77,9 | 76,4 | 80,1 | 84,5 | 87,3 | 74,5 | 73,0 | 72,8 | 66,0 | 66,6 | 70,4 | 72,9 | 80,6 | 54,5 | 52,5 | 51,5 | 48,0 | 45,6 | 52,1 | 52,9 | 57,9 | | | | | | |
| Inprimakiek eie formulazioak bueltatzeko | 79,3 | 78,7 | 77,0 | 72,7 | 74,0 | 82,8 | 93,4 | 96,9 | 67,2 | 69,9 | 69,1 | 61,6 | 68,6 | 73,7 | 87,0 | 96,2 | 47,8 | 48,9 | 48,8 | 44,5 | 45,0 | 53,2 | 53,7 | 57,6 | | | | | | |
| Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko | 61,5 | 69,9 | 74,3 | 67,4 | 69,5 | 76,4 | 78,7 | 77,6 | 51,5 | 59,5 | 58,9 | 55,9 | 57,7 | 64,9 | 66,6 | 70,5 | 34,7 | 37,9 | 42,5 | 40,9 | 40,6 | 48,8 | 49,5 | 54,0 | | | | | | |
| Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement) | 10,8 | 19,8 | 26,3 | 23,8 | 23,2 | 26,4 | 27,5 | 26,5 | 7,1 | 12,7 | 17,5 | 15,0 | 15,2 | 18,8 | 17,4 | 22,5 | 3,7 | 6,8 | 8,0 | 6,6 | 5,6 | 4,8 | 4,6 | 10,5 | | | | | | |
| Langileen pertsonen kolitzazio sozialak adierazteko | 50,3 | 50,1 | 56,7 | 53,9 | 53,5 | 64,8 | 61,1 | 86,4 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | | | | | | |
| Sozietate-Zergaren adierazpenetarako | 24,8 | 27,2 | 30,0 | 29,9 | 30,8 | 32,0 | 23,4 | 24,2 | - | - | - | - | - | - | - | - | 22,7 | 24,0 | 24,4 | 22,6 | 24,7 | 25,2 | 15,5 | 15,8 | | | | | | |
| Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenetarako | 29,2 | 32,4 | 36,6 | 35,7 | 37,3 | 49,8 | 43,4 | 48,7 | - | - | - | - | - | - | - | - | 28,1 | 28,5 | 31,2 | 30,2 | 31,6 | 43,5 | 35,6 | 40,4 | | | | | | |
| Zerigo bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko | 4,9 | 6,8 | 9,2 | 8,4 | 8,3 | 10,0 | 9,2 | 10,3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | | | | | | |
| Beste izapide edo zerbitzu batzuk | 8,6 | 7,7 | 7,4 | 13,0 | 7,9 | 10,0 | 5,2 | 5,9 | 5,6 | 4,2 | 3,7 | 11,2 | 6,5 | 7,2 | 3,7 | 4,3 | 2,9 | 3,5 | 3,4 | 2,9 | 1,8 | 2,2 | 4,5 | 4,5 | | | | | | |


TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen esabiezimendua izapideten motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017-2024. % (Jarraip.)

| | Toki-erakundeak | | | | | | | | | | Administrazio zentrala | | | | | | | | | | Europar Batasuna eta beste batzuk | | | | | | | | | |
|--|-----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-----------------------------------|------|------|------|-----|--|--|--|--|--|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | | | | | | |
| HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE | 53,0 | 60,4 | 61,7 | 56,1 | 59,5 | 66,2 | 64,5 | 67,2 | 67,8 | 69,3 | 72,3 | 69,4 | 70,4 | 82,7 | 77,4 | 89,8 | 38,4 | 34,1 | 36,9 | 29,8 | 30,9 | 38,5 | 39,8 | 45,4 | | | | | | |
| Informazioa lortzeko | 49,0 | 54,9 | 57,7 | 52,9 | 54,8 | 61,7 | 59,7 | 62,8 | 55,3 | 53,9 | 57,1 | 53,7 | 53,5 | 61,8 | 61,7 | 61,2 | 31,5 | 26,9 | 31,3 | 24,7 | 25,3 | 36,0 | 38,3 | 43,0 | | | | | | |
| Inprimakiek eie formulazioak buruzko | 38,9 | 41,6 | 45,5 | 38,5 | 42,9 | 46,5 | 46,8 | 52,5 | 47,2 | 44,9 | 48,1 | 47,0 | 46,0 | 55,6 | 54,0 | 55,1 | 25,4 | 24,6 | 25,4 | 19,7 | 19,7 | 30,6 | 29,2 | 35,3 | | | | | | |
| Inprimakiek eie formulazioak bueltatzeko | 29,3 | 35,0 | 39,3 | 35,9 | 42,9 | 47,4 | 47,3 | 53,5 | 42,4 | 42,6 | 45,1 | 44,9 | 44,9 | 55,5 | 54,9 | 54,4 | 20,5 | 19,9 | 22,6 | 17,4 | 19,6 | 28,7 | 31,4 | 36,2 | | | | | | |
| Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko | 16,9 | 20,5 | 22,8 | 22,5 | 27,8 | 28,8 | 33,9 | 39,4 | 32,7 | 34,7 | 38,4 | 39,7 | 37,8 | 51,1 | 49,8 | 50,3 | 14,8 | 16,2 | 16,7 | 14,0 | 14,6 | 12,6 | 19,9 | 19,7 | | | | | | |
| Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement) | 1,3 | 4,8 | 5,0 | 3,8 | 4,4 | 4,0 | 3,8 | 4,5 | 3,1 | 9,0 | 12,0 | 11,9 | 9,0 | 10,1 | 14,1 | 12,8 | 1,1 | 4,6 | 5,0 | 4,1 | 2,8 | 2,5 | 2,9 | 2,5 | | | | | | |
| Langileen pertsonen kolitzazio sozialak adierazteko | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 48,4 | 49,9 | 56,3 | 53,7 | 53,5 | 64,3 | 60,8 | 86,2 | 1,9 | 0,2 | 1,5 | 0,6 | 0,7 | 0,8 | 0,4 | 0,4 | | | | | |
| Sozietate-Zergaren adierazpenetarako | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 2,1 | 3,6 | 6,0 | 8,2 | 6,8 | 7,9 | 8,2 | 9,0 | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | | | | | | |
| Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenetarako | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 1,5 | 4,1 | 5,7 | 6,3 | 6,4 | 6,8 | 7,7 | 8,7 | 0,0 | 0,1 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | | | | | | |
| Zerigo bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 4,6 | 6,8 | 8,9 | 8,3 | 8,3 | 9,7 | 8,9 | 10,3 | 0,2 | 0,0 | 1,0 | 0,1 | 0,5 | 0,3 | 0,4 | 0,1 | | | | | |
| Beste izapide edo zerbitzu batzuk | 0,0 | 2,7 | 2,8 | 3,2 | 4,1 | 0,4 | 3,1 | 3,6 | 4,0 | 3,8 | 3,3 | 3,6 | 4,3 | 5,2 | 3,8 | 4,3 | 0,3 | 0,6 | 0,7 | 0,5 | 0,3 | 1,2 | 0,7 | 0,7 | | | | | | |

4. e-Administrazioa eta pertsonak

2024an, EAEn bizi ziren 16 eta 74 urte bitarteko ia % 64,5ek administrazio elektronikoa erabili zuten, 2009an halako bi.

EAEn bizi diren 16-74 urteko 1.049.900 pertsonak, % 64, administrazioetako baliabideren bat erabili duten azken 12 hilabeteetan (2024ko lehen hiruhilekoaren eta 2025eko lehen hiruhilekoaren artean) herritarrekin elkar eragiteko.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

2005az geroztik, administrazio elektronikoaren erabiltzaileen kopurua internauten kopurua baino gehiago hazi da. Joera hori 2010 eta 2011 bitartean hautsi zen, erabiltzaileen kopurua % 2 soilik igo baitzen, eta internautena, aldiz, % 8,4. 2011 eta 2012 bitartean, hazkundera internauten % 1,7ra murriztu zen, hots, 2003az geroztik gehikuntza txikiena izan zen. Gertaera horrek, krisi-egoerarekin batera, hein batean azaldu dezake zergatik jaitsi zen % 4,3 administrazio publikoekin harremanetan jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua.

2014 eta 2015 bitartean, internauten kopuruak gora egin zuen —80.000 gehiago—, eta, horrekin batera, e-Administrazioaren erabiltzaileen kopurua % 18,6 hazi zen.


2016an eta 2017an, aldiz, erabiltzaileen kopurua jaitsi egin zen, baina laginen aldaketa metodologikoen ondorioz; beraz, ez da aintzat hartu behar.

Bilakaera desitxuratu horrek ez du galarazten «Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak» biltzen dituen ezaugarri batzuen joerak eta banaketak aztertzea.


2019tik 2025ra, zifra absolutuen hazkundera 297.300 pertsonakoa izan zen e-Administrazioan. Internauten kopurua % 10,1 igo zen, eta administrazio elektronikoen erabiltzaileena, berriz, % 39,5.

Azken urtean, e-Administrazioaren guztizko hazkundera 7.700 erabiltzailekoa izan zen. Internauten kopurua % 0,2 jaitsi zen eta administrazio elektronikoen erabiltzaileena 0,7 % hazi zen.

G.7 Azken 3 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2022, azken 12 hilabetetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2025.




G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2025. Δ%




Sexua kontuan hartuta eta internauten edo administrazio elektronikoko erabiltzaileen ehunekoen arteko aldea kalkulatzeko bada gizonen eta emakumeen guztizkoan, hurrenez hurren, gorabehera handiko aldiak izan arren, 2006tik 2016ra bitarte, arrakala hori murrizteko joera motela eta argia ikusten da. 2017. urteaz geroztik, emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izan da, eta 2024an 40.100 emakume internauta gehiago egonda, 2025ean aldea 17.600era murriztu den arren.

Administrazio elektronikoen erabilerari dagokionez, hainbat zirkunstantzia direla eta, datuen seriea hasi zenetik 2017ra arte, generoen arteko aldea 2 puntu negatibotik gorakoa zen, emakumeen kaltetan. 2018an, erabiltzaileen tasek berdintzeko joera erakutsi dute, eta 2019tik aurrera, administrazio elektronikoen erabilerak gora egin du emakumeen artean, gizonen artean baino 6,7 puntu gehiago.




Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.12.b 16-74 urte bitarteko internauten edo Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopuruaren diferentzia, sexuaren arabera. EAE. 2003-2025. Milak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.1.2.3. Administrazio Elektronikoa azken hamabi hilabeteetan (****) erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, erakunde motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 2017-2025. %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Inkestaren beste ezaugarri garrantzitsu bat herritarrek elkarri eragiten duten administrazio motan datza, azken urteotan nolabaiteko egonkortasuna ageri du:

Esan daiteke 2025ean eAdministrazioa erabiltzen duten lau pertsonatik hiruk, % 70,7k, Eusko Jaurlaritzarekin eta bere ingurune instituzionalarekin egiten dutela; hau da, 742.800 pertsonak (2024an baino 30.600 pertsona gehiago).

Foru-aldundiek % 46,1 eta 484.000 erabiltzaile lortu dituzte.


Toki-erakundeak % 25,1 dira, eta 263.700 pertsonak dute harreman elektronikoa haiekin.

Administrazio zentralak eAdministrazioaren erabiltzaileen % 19,9 biltzen du, eta ehuneko horren atzetik 209.200 pertsona daude.

Europar Batasunak eta beste administrazio publiko batzuek % 2,5 eta 26.500 erabiltzaile dituzte.

EAEko administrazio publikoren batera inprimakiak Internet bidez bidali zituzten biztanleen %2,8k hirugarren pertsonen bidez bidali zituzten inprimakiak, 2024an baino ehuneko 2,4 puntu gutxiago.

G.14 Administrazio elektronikoen erabiltzaileak (formularioak bidaltzea), erabileraren arabera, zuzena edo hirugarrenen bitartez. EAE. 2021-2025 %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Ezagutza-maila, erabilera-maiztasuna eta fideltasuna zenbatesteko, Eustaten inkestak bestelako informazio osagarria ere ematen du: inkestatutakoek bisitatu eta gogoratzen dituzten webguneak⁶.

Alde batetik, azpimarratu behar da 2025ean (edozein motatako webguneei)⁷ egindako aipamen guztien % 12,9 edozein administrazioen atari publikoei dagozkiela; Aurreko urtearen aldean 1,1 puntuko igoera egon da.

Edozein espazio-eremutako atari publikoak aipatzen diren lautik hiru, % 78,3, euskal administrazioei eta sektore publikoari dagozkie.

Oro har, EAEko administrazioen eta sektore publikoaren web-orriei buruzko aipamenak bakarrik kontuan hartzen badira, % 68,5 EAEko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen webguneei dagozkie, aurreko urtean baino ehuneko puntu bat gehiago. Kopuru horretatik, % 60 Eusko Jaurlaritzari lotutako atariei dagokie.


⁶ IGIFen galdeketan, bisitatutako azken 5 webguneak biltzen dira, inkestatutako uneari dagokionez. 2015az geroztik, lehen hiruhilekoan, azken 3 hilabeteetan Internetera konektatu diren pertsonak erantzuten dute.

⁷ Guztizkotik sare sozialei (Facebook, X, YouTube, Instagram, TikTok...), bilatzaileei eta berehalako mezularitzari (WhatsApp) buruzko aipamenak kendu dira, eta horiek bildutako guztien % 65,5 dira 2024an.

EAEko atari publikoen aipamenen % 10,8 foru-aldundietako atariei dagokie, % 6,1 udalerrirei eta % 13 unibertsitate publikoari (UPV/EHU).


2024ari dagokionez, termino absolutuetan, Eusko Jaurlaritzaren atariei buruzko aipamenak % 25,7 igo dira, eta % 14,5 erakunde autonomoei eta sozietate publikoei buruzkoak. Foru-aldundien webguneen aipamenak % 20,5 igo dira.

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten webgune publikoen aipamenak administrazio-motaren arabera. EAE. 2005-2025. Milakoak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten EAEko webguneen aipamenak. 2005-2024. Milakoak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF



5. E-ADMINISTRAZIOKO TERMINOEN GLOSARIORAKO ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ESTADISTIKETARAKO ESTEKAK

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN KONTZEPTUEN GLOSARIOA](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [ZERBITZU PUBLIKO ELEKTRONIKOEN GAINKO ESTADISTIKA ESPE](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN BAROMETROA. BEA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. FAMILIAK.IGIF](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA - ENPRESAK. IGIE](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA ADMINISTRAZIOAN. IGIA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA - LEHEN SEKTOREA.IGILS](#)

[BESTE ITURRI BATZUK](#)